LEGAZPIKO UDALA

## LEGAZPIKO UDALEKO FUNTZIONARIOEN PLANTILLAKO ARKITEKTO PLAZA BAT BETETZEA HELBURU DUEN HAUTAKETA PROZESUA.

## LEHENENGO AZTERKETAREN BEHIN-BETIKO EMAITZAK.

2022ko otsailaren 10ean egindako ariketari aurkeztutako alegazioen ondorioz, 5 galdera baliogabetu dira (6, 21, 34, 36 eta 39) eta beste bat (43) zuzendu da, dokumentuaren amaieran azaltzen diren arrazoiengatik.

Egindako baliogabetze eta zuzenketek eragina izan dute ariketaren behin-behineko emaitzetan. Emaitza horiek egindako aldaketetara egokitu dira, eta honela geratu dira:

Legazpiko Udala • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI • IFK: P-2005500-J
www.legazpi.eus • legazpi@legazpi.eus

CSV: 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7E3A7L8S5T8

LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7 E3A7L8S5T8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA | EXPEDIENTE :: 2020IZEN00017 |
|---|---|---|
| | FERNANDO ARAKAMA FERNANDEZ-Kontuhartzailea - 11/04/2022<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2022 08:56:15 | Esp.Data: 16/11/2020<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |

## Otsailaren 10ko azterketa:

| | TEST GALDETEGIA (50) | | | GUZTIRA | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| NAN | ERANTZUN ZUZENAK | ERANTZUN OKERRAK | ZURIZ | 50 | 10 | |
| ***4268** | 24 | 18 | 8 | 18,06 | 3,612 | EZ GAI |
| ***3465** | 25 | 9 | 16 | 22,03 | 4,406 | EZ GAI |
| ***8594** | 35 | 13 | 2 | 30,71 | 6,142 | GAI |
| ***0827** | 30 | 7 | 13 | 27,69 | 5,538 | GAI |
| ***4476** | 22 | 10 | 18 | 18,7 | 3,74 | EZ GAI |
| ***2687** | 26 | 9 | 15 | 23,03 | 4,606 | EZ GAI |
| ***3739** | 37 | 7 | 6 | 34,69 | 6,938 | GAI |
| ***3617** | 25 | 21 | 4 | 18,07 | 3,614 | EZ GAI |
| ***8724** | 33 | 8 | 9 | 30,36 | 6,072 | GAI |
| ***4821** | 36 | 13 | 1 | 31,71 | 6,342 | GAI |
| ***5208** | 21 | 18 | 11 | 15,06 | 3,012 | EZ GAI |
| ***2507** | 34 | 6 | 10 | 32,02 | 6,404 | GAI |
| ***9643** | 19 | 17 | 14 | 13,39 | 2,678 | EZ GAI |
| ***3432** | 31 | 10 | 9 | 27,7 | 5,54 | GAI |
| ***6334** | 35 | 8 | 7 | 32,36 | 6,472 | GAI |
| ***7246** | 30 | 3 | 17 | 29,01 | 5,802 | GAI |
| ***4353** | 29 | 21 | 0 | 22,07 | 4,414 | EZ GAI |
| ***5330** | 30 | 16 | 4 | 24,72 | 4,944 | EZ GAI |
| ***5478** | 28 | 13 | 9 | 23,71 | 4,742 | EZ GAI |
| ***3805** | 35 | 5 | 10 | 33,35 | 6,67 | GAI |
| ***3444** | 36 | 6 | 8 | 34,02 | 6,804 | GAI |
| ***5298** | 27 | 15 | 8 | 22,05 | 4,41 | EZ GAI |
| ***3783** | 25 | 18 | 7 | 19,06 | 3,812 | EZ GAI |
| ***4702** | 34 | 5 | 11 | 32,35 | 6,47 | GAI |
| ***2802** | 28 | 5 | 17 | 26,35 | 5,27 | GAI |
| ***8173** | 48 | 2 | 2 | 47,34 | 9,468 | GAI |

## Otsailaren 22ko azterketa:

| | TEST GALDETEGIA (50) | | | ERRESERBA GALDERAK (10) | | | GUZTIRA | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ERANTZUN ZUZENAK | ERANTZUN OKERRAK | ZURIZ | ERANTZUN ZUZENAK | ERANTZUN OKERRAK | ZURIZ | 50 | 10 | |
| ***6747** | 29 | 12 | 9 | 3 | 7 | 0 | 25,04 | 5,008 | GAI |

CSV: 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7E3A7L8S5T8



LEGAZPIKO
UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela
07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7
E3A7L8S5T8
kodearekin egiazta daiteke
ondorengo Entitatearen Egoitza
Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
FERNANDO ARAKAMA FERNANDEZ-Kontuhartzailea - 11/04/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2022
08:56:15

EXPEDIENTE ::
2020IZEN00017
Esp.Data: 16/11/2020
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO
GENERAL

**2022/02/10EAN EGINDAKO AZTERKETA TEORIKOARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ONDORIOZ BALIOGABETUTAKO ETA ZUZENDUTAKO GALDEREN ZERRENDA, BAITA HAIEK BALIOGABETZEKO ARRAZOIAK ERE:**

- **6. galdera.**

**Autonomia-estatutuek ezin dute jaso (Espainiako Konstituzioaren 147. art.):**

a. Erkidegoaren lurralde-mugak
***b. Bere autonomia-erkidegoko ereserki ofiziala***
c. Berezko erakunde autonomoen izena, antolaketa eta egoitza.
d. Erkidegoaren izena, haren nortasun historikoaren arabera egokiena dena.

Galdetegiko galderan baliozkotzat ematen da honako baieztapen hau: “autonomia-estatutuek ezin dute ereserkirik jaso”. Hala ere, erantzun hori ez da zuzena, Espainiako Konstituzioak gutxieneko lau eduki ezartzen dituelako autonomia-estatutuen garapenean, baina ez ditu eduki horiek mugatzen.

- **21. galdera.**

**Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, 5.000 biztanletik gorako udalerri batek ez du zertan ondoko zerbitzua eskaini:**

a. Liburutegi publikoa.
b. Babes Zibila.
c. Hondakinen tratamendua.
d. Edateko uraren etxeetako hornidura

Argitaratutako erantzun-orriaren arabera, B da erantzun zuzena.

Hala ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatzen du 20.000 biztanletik gorako udalerrietan babes zibileko zerbitzua eman beharko dela. Galderak 5.000 biztanletik gorako udalerri bati egiten dio erreferentzia, biztanleria zehatza zehaztu gabe eta biztanleria hori 20.000 biztanletik behera finkatu gabe.

CSV: 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7E3A7L8S5T8



LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7 E3A7L8S5T8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA<br>FERNANDO ARAKAMA FERNANDEZ-Kontuhartzailea - 11/04/2022<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2022 08:56:15 | EXPEDIENTE :: 2020IZEN00017<br>Esp.Data: 16/11/2020<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |
|---|---|---|

Beraz, galderan aipatutako udalerri batzuetan BAI izango da prestatu beharrekoa babes zibileko zerbitzua. Ondorioz, galdera formulatuta dagoen moduan, erantzun bakar bat ere ez da baliozkoa.

- **34. eta 36. galderak, gai-zerrendan jasota ez daudelako.**

2021eko maiatzaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Legazpiko Udaleko arkitekto-plaza bat jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten Oinarrien I. Eranskineko gai-zerrenda orokorrean, besteak beste, honako gai jasotzen da:
***12. Gaia.- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: obra-, zerbitzu- eta hornidura-kontratuak. (Bigarren Liburuaren II. Titulua).***
Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bigarren liburuaren II. Tituluak honako kapituluak ditu:

I. KAPITULUA Obra-kontratua, 231-246 artikuluak
II. KAPITULUA Obra-emakidako kontratua, 247-283 artikuluak
III. KAPITULUA Zerbitzu-emakidako kontratua, 284-297 artikuluak
IV KAPITULUA Hornidura kontratua, 298-307 artikuluak
V. KAPITULUA Zerbitzu-kontratua, 308-315 artikuluak

Kapitulu horietatik, 12. Gaian honako hauek sartzen dira gai-zerrendaren zati gisa: “obra-kontratuak” (I. Kapitulua), “zerbitzu-kontratua” (V. Kapitulua) eta “hornidura-kontratua” (IV. Kapitulua), baina ez ditu “obra-emakidako” kontratuak (II. Kapitulua) eta “zerbitzu-emakida” (III. Kapitulua) aipatzen, gai-zerrendan sartutakoen maila bereko espezialitateak baitira.
Beraz, bai Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 290. artikulua (34. galdera), bai Lege beraren 294. artikulua (36. galdera), “zerbitzu-emakidako kontratuak” izenburuko III. kapitulukoak, eta ez daude 12. gaian sartuta.

- **39. galdera.**

**Zerbitzuak zeharka kudeatzeko moduei dagokienez, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 113. artikuluak ezartzen du toki korporazioen eskumeneko zerbitzuak zeharka eman ahal izango direla, honako hauen arabera:**

CSV: 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7E3A7L8S5T8



LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7 E3A7L8S5T8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA<br>FERNANDO ARAKAMA FERNANDEZ-Kontuhartzailea - 11/04/2022<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2022 08:56:15 | EXPEDIENTE :: 2020IZEN00017<br>Esp.Data: 16/11/2020<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |
|---|---|---|

a. Kontzesioa, errentamendua eta ituna.
b. Kontzesioa bakarrik.
c. Errentamendua eta ituna bakarrik.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketaren konfigurazio berria dakar. Modu berean, honakoa ezartzen du 9/2017 Legeak:

“Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea. Indargabeturik geratzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, baita lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

Xedapen indargabetzaile horren ondorioz, 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 113. artikulua ez litzateke indarrean egongo. Beraz, galderan aipatzen den artikulua indargabetuta dago.

➢ **43. galdera zuzentzen da.**

**Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legearen 3. artikuluaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak esan nahi du:**

a. ez dagoela sexuan oinarritutako inolako bereizkeriarik, ez zuzenekorik ez zeharkakorik, eta, bereziki, amatasun-egoeraren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
b. ez dagoela sexuagatiko diskriminazio zuzenik, eta, bereziki, amatasun-egoeraren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
c. ez dagoela sexuagatiko inolako bereizkeriarik, ez zuzenekorik ez zeharkakorik, eta, bereziki, amatasun-egoeraren ondoriozkorik.
d. ez dagoela sexuan oinarritutako inolako bereizkeriarik, ez zuzenekorik ez zeharkakorik, eta, bereziki, amatasun-egoeraren eta familia-betebeharrak hartzearen ondoriozkoak.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legearen 3. artikuluaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak honako hau dio berariaz:

CSV: 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7E3A7L8S5T8



LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7 E3A7L8S5T8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA<br>FERNANDO ARAKAMA FERNANDEZ-Kontuhartzailea - 11/04/2022<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2022 08:56:15 | EXPEDIENTE :: 2020IZEN00017<br>Esp.Data: 16/11/2020<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |
|---|---|---|

*“Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak berarekin dakar sexuan oinarritutako bereizkeriarik eza, bereizkeria hori zuzenekoa nahiz zeharkakoa izatea gorabehera, eta, bereziki, amatasun-egoeraren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoa*.”

Ondorioz, erantzun zuzena A da eta ez B.

***Administrazio bidean behin-behinekoa den erabaki honen aurka, Gorako Errekurtsoa jarri daiteke alkatearen aurrean. Horretarako hilabeteko epea dago, iragarkia udaleko web orrialdean eta iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.***

Legazpiko Udala • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI • IFK: P-2005500-J
www.legazpi.eus • legazpi@legazpi.eus

CSV: 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7E3A7L8S5T8

LEGAZPIKO UDALA

| Dokumentu hau egiazkoa dela 07E60004CBF500F8O7L7I6C4R6E9D7 E3A7L8S5T8 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan | SINATZAILEA - DATA | EXPEDIENTE :: 2020IZEN00017 |
|---|---|---|
| | FERNANDO ARAKAMA FERNANDEZ-Kontuhartzailea - 11/04/2022<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/04/2022 08:56:15 | Esp.Data: 16/11/2020<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg: REGISTRO GENERAL |